

## **BI MILA ETA HAMABOSTEKO OTSAILAREN HOGEITA SEIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.**

Arrietan 2015eko otsailaren hogeita seian, 20:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri  
Aitziber Ibinarriaga Delgado  
José Jesús Iturbe Oñartetxebarria  
Beñat Barainka Enzunza

Eduardo Saez Rementeriak eta Lorenzo Ortiz Guerrak aurretiaz azaldu du bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

### **I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO URTARRILAREN HOGEITA BEDERATZIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.**

Bi mila eta hamabosteko urtarrilaren hogeita bederatzian egindako bilkuraren aktaren borradorea irakurri ostean, Udalbatzak, onartzea erabaki du.

### **II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.**

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da euren edukia

#### **Naturgas Energiak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.**

Jainko auzoan sarea konpontzeko baimena eman zaio Naturgas Energiari.

#### **Iñaki Otazua Etxebarriak aurkeztutako obra lizentzia eskaera.**

Libao auzoan hiri lurrian etxebizitza bat eraikitzeko baimena eman zaio Iñaki Otazua Etxebarriari.

#### **2014ko Aurrekontuaren likidazioaren onarpena.**

2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu da.

#### **2015eko Aurrekontuaren 1 zenbakidun kredituen aldaketa.**

2015eko Aurrekontuaren 1 zenbakidun kredituen aldaketa onartu da, kredituen gehiketaz.

#### **2015eko Aurrekontuaren 2 zenbakidun kredituen aldaketa.**

2015eko Aurrekontuaren 2 zenbakidun kredituen aldaketa onartu da, kredituen habilitazioaz.

<b>III.- Aho batez onartutako fakturak.</b>	<b>€</b>
-Bikote Solar, Urienako biomasa-galdararen konponketa,.....	583,49
-Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Etxeetara laguntza eta bestelakoak, 2014 abendua,.....	1.300,63

**IV.- NORBERAK LEKARKEENA.**

Ez dago galderarik.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoanez, Alkate jaunak amaitutzat jodau bilkura gaueko zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.